

BERRIGARA

47. zenbakia

Jardun elkarteak, Bergara

1992, urtarrilak 10



**A ze turroi pilak jan
ditugun!!**



**Lorategia
herriztuko da
Irizar Etxean**



**Beherapenak:
urtarrileko
gangak**




**San Silbestre
urteko
azkena**

ELKARrek

**Fotokopiak koloretan
eskeintzen dizkizu**

Telefona eta Faxa:
765816

Harruriaga 1
BERGARA



Barrenkale, 3 • BERGARA • telf.: 943-765919

**Pintxoak, eguneroko menua eta
karta bereziak ditugu
Betiko eta oraingo sukaldaritza**



ARGAZKI

**18 urtean
zure zerbitzuan**

Barrenkale 16 Tfnoa: 76 20 66



GALDE DEBALDE

M. Karmen Agirrezabal

**Aurreko GALDE DEBALDEko erantzun
zuzena hau zen: 643 urte pasa dira eta udalerria
Elgeta zen.**

**M. Karmen Agirrezabalek idabazi du
ASKASIBAR JATETXEKO SARIA.**

**ZORIONAK irabazleei!!
Eta besteok animatu, eta erantzuna eman
aste honetako galderarai!**

**SANTOS
IRRATI - TB**

**Elektragailuak
Sukaldeko Altzariak
Argiztapena
Antena instalazioak
Elektragailuen konponketa**

Mahasterreka 2, Tfnoa: 76 26 10 BERGARA



JANTZIDENDA

Barrenkale 24, Tfnoa: 76 10 57

BERRIGARA

Argitaratzailea:

Jardun Elkartea

Errotalde Jauregia, 20.570
Bergara

Tfnoa eta Faxa: 760397

Laguntzailea: Bergarako
Udala

Erredakzioa eta maketazioa:

Eneko Azkarate, Eduardo
Mendibil

Publizitatea eta harpidetzak:

Aitor Aranzabal, Iñaki
Arietaleaniz eta Eburne Arenaza
Tfnoa: 760397

Erredakzio-kontseilua:

Miguel Angel Elkoroberezar,
Jose Angel Mikeo, Estepan
Plazaola eta Juan Martin
Elexpuru

Kolaboratzaileak: J. Oregi, A.
Urzelai, Maripi Laskurain, Ainhoa
Lete, Jon A. Bengoa, Mikel
Lizarralde, Monika Belastegi,
Mikel Elkoroberezar, Josune
Iñarra, Xabier Aranburu, Aitziber
Aretxaga, I. Sorondo eta Ainhoa
Bikufia

Argazki laborategia:

B. Cantero, M. Leturia, J.A.
Eguren, J.I. Millan, J. Aguayo,
Jaime Garzia, Dani Santos,
Txomin Retolaza, Kiñu eta Pol-
Pol Mendizale Taldea.

Komikia eta marrazkiak:
Josu Okina eta Antonio Arrillaga

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa: Txantxangorri
Taldea

Copyright:
BERRIGARA

Tirada: 2.500 ale

Logo gordailua: SS 50/ 91

ISSN: 1130-6599

BERRIGARA ez du bere gain
hartzten aldizkarian adierazitako
esanen eta eritzien erantzunkin-
zunik.



Udal Musika Bandak kontzertua eskeini-
ko du igandean, hilak 12, eguardiko 12 t'erdietan
Novedades Aretoan. Alfredo Gonzalez Chirla-
queren zuzendaritzapean, besteak beste, Rosillo,
Miguel Gonzalez Bastida edota Löffleren piezak
eskeiniko dizkigu.

LARUNBATA 11

- **Eskubaloia:**
-Bergara-Usurbil (kadete
neskak), 17.30etan.
- Bergara-Aloña Mendi
(gazte neskak), 18.30e-
tan.
- Bergara-Urrietako (se-
nior gizonak), 19.45etan.

- **Saskibaloia:**
-Bergara-Juven (gazte
mutilak), 16.00etan.
- Bergara-Michelin (gazte
neskak), 16.00etan.
- **Erakusketa:**
-Eskulturak eta eskula-
nak Kultur Etxean igan-
dera arte.

- **Pelota partiduak:**
-Arteaga-Mendia/Zaba-
la-Aldazabal II, Bergara
II-Arretxe/ Salaberria-
Galarza III eta Murga-
Unzain/Retegi III-Ga-
raitia, Pelotalekuan
16.30etan.

IGANDEA 12

- **Eskubaloia:**
-Bergara-S.D. Pulpo (ju-
nior mutilak), 10.30etan.
- **Saskibaloia:**
-Bergara-Renteria (junior
mutilak), 12.15etan.
- **Futbola:**
-Bergara-Soraluze, Ago-
rrosinen 15.45etan.

FARMAZIAK



- 11 Camacho
- 12 Camacho
- 13 Puy
- 14 Estella
- 15 Mozos/Morales
(Arrasaten gauzez)
- 16 Camacho/Español
- 17 Puy/Corcuera
- 18 Puy/Irizar

ZINEA



El imperio del mal

- **OSTIRALA:** 22.30etan.
- **IGANDEA:** 15.00, 19.30
eta 22.15etan.
- **ASTELEHENA:** 19.30.

El cadillac rosa

- **LARUNBATA:** 17.00,
19.30 eta 22.30etan.

OGIA



Mizpildi

Paper pintatuak - Pinturak

A. ZANGITU

Tfnoa: 76 19 54 BERGARA
Tfnoa: 79 91 82 ARRASATE



BARRENKALE 4 Tfnoa: 76 18 14

ORTZI

Erretegia

ANGIOZAR Tfnoa: 76 22 68

Beheko Taberna

Menestra eta konejoa dira gure berezitasunak.

ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 74

CAMACHO

**DROGERIA
USAINDEGIA**

Bidekurutzeta 24, Tfnoa: 76 13 35
BERGARA



Gizon Emakume
Barrenkale 35 Irala 2
BERGARA

Hagin klinika

Idoia Iriarte Irureta

Artekale 1, 1. C Tfnoa: 76 01 65

Alkatetzak HBri

Alkatetzak eta bere gobernua HBren "Bergarako herriari" ("Al pueblo de Bergara") artikuluei egin nahi dizkien komentarioak:

Alkatetza honek ez du kaleko propagandari buruzko Dekretorik eman. Jose Luis Elkorok Alkate zegoela onartu eta 90-9-18an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako Ordenantza bete besterik ez da egiten.

Ordenantzaren 1. go artikulua "Toki eta bide publikoen erabilpenarako eskubideak konpatibilizatzeara eta egoera onean zaindu beharra" adierazten du.

Oposizioan egon garen edo dauden beste talde guztiok ere ez dugu herriko apainketaren kontra egin izan gure ideiak adierazteko.

Harrigarria da HBk "seguirá apostando por la imaginación, por la creatividad y por el trabajo" esatea. Ea ahalegin horrekin guztion eskubideak errespetatzea lortzen den: beren adierazpen askatasuna eta bergarar guztiok herri duin eta garbia izateko eskubidea.

Gero "Es mentira que esos partidos tengan una mínima inquie-

tud por la limpieza". Hori, zeinek eta HBk esatea ere!

Eta amaieran adierazten du "ikusiko dugu zer nolako erantzuna eman hemendik aurrera arazo berri honi". Arazoa eurok sortutakoa da eta halako mehatxuek ez digute bergarar guztientzako herri atsegina lortzeko ahaleginetan atzera egingo.



Eskerrik asko

Kaixo lagun:

Gutun honen bidez, publikoki eskertu nahi genituzke, Kirolaririk onena, Etorkizunik onenakoa eta talderik onena aukeratzeko, Berri-garak antolatu duen sariketarako emandako botoak, talderik onena bezala aukeratu izateak, asko poz-tu bait gaitu lanean jarraitzeko.

Lokatza Txirrindulari
Elkartea

Tiira ba!



Josu Okina

▣ Haur jolasak

Udal Kirol Zerbitzuak, Bergarako Igeri Elkartearen laguntzaz, Jolas-Igeri Lehiaketa antolatu du larunbaterako, hilak 11, 82 eta 83 urteetan jaiotako haurrentzat. Hori dela eta, pizinak itxita egongo dira goizeko 8etatik arratsaldeko ordu bata t'erdia arte.

▣ Elkarte berria

Artatse Elkarte berria ireki zuen Herri Batasunak abenduaren 31.ean. Inaugurazio ekitaldian *Jose Luis Elkoro* eta *Jon Idigoras* HBko kideek eta *Xabier Zubizarreta* Arrasateko alkateak hartu zuten parte. *Koldo Egileor* eta *Jesus Kortabarria* "Kaxeta" bertsolarien saioaren ondoren, *lunch* bat eskeini zitzaizen bildutako guztiei lokal berriaren zabaltzea ospatzeko.



Lorategiak txukundu

Irizar Etxeko lorategiaren egoera kaskarra dela eta, Bergarako Udalak berau berriztatzeko erabakia hartu du. Egin beharreko berrikuntzen helburua lorategia herriarren espazio publiko bihurtzea litzateke eta ondorioz 7 milioi eta erdi pezetako aurrekontuarekin, besteak beste, zuhaitzak landatu, jarlekuak jarri edota lorategiak eta pasilloak txukuntze-

ko lanak egingo dira. Proiektu hau gauzatzeko ez da itxoingo 92ko presupuestoak aprobata arte eta, beraz, beste proiektu batzutarako bideratu behar zen dirua honetara desbideratu beharko da. Era berean, Udalak, Usondon eta Rekaldeen ere zenbait berrikuntza eta 92rako Unzeta Ruiz de la Pradako parkea egiteko asmoa du.

▣ Zozketak

Institutuko 3. mailako ikasleek ikasketa bidaiaaren alde zozketatutako saskia 4.768 zenbakiaren jabea genuen *Sonia Rodriguezentzat* izan da. Bestalde, *Musika Eskolak* zozketatutako saskia 7.925 zenbakiarentzat izan da eta musika-katea berriz, 10.862 zenbakiak irabazi du. *Bergara K.E.*ren zozketan berriz, 61.768 eta 75.466 zenbakiak sari bana jasoko dute. Azkenik, *Lokatza* zozketatzen zuen bizikleta 9.211 zenbakiak eraman du.

▣ Erakusketa

Iganderarte, hilak 12, ikusgai izango dira Kultur Etxeko Erakusketa Aretoan zenbait bergararrek aurkeztutako *eskulanak eta eskulturak*.

Bergarako amona hil

Urte berriak albiste txar bat ekarri zigun, *Anizeta Agirre Elkoroiturbe* Bergarako amona joan bait zitzagun urtarrilaren 4ean. Anizetak 103 urte beteak zituen, 1888.eko apirilaren 17an jaio baitzen Osintxuko *Laudatz* baserrian. Deogracias eta Manuelen alaba, bi anai eta bost ahizpa izan zituen. Bi aldiz ezkondu zen; lehenbizi bere lehengusu zen *Luis Zangiturekin* eta ondoren, Luis hildakoan, *Felipe Garmendiarekin* ezkondu eta zazpi biloba eman dizkieten lau seme eta alaba bat izan zituzten. Guztiek domekan azken agurra eman zioten. Goian Bego.



P. MANSO
Optika

OPTIKOA. OPTOMETRISTA

Irizar Ibilbidea 2, Tfnoa; 76 27 86

LARRAÑAGA
eta ZUBIA
Banatzaileak

Errioxako ardoak, olioak,
esnea, lejiak

Martokua 32, tfnoa: 764594

□ **Gartzela prest**

Eskola tailerreko ikasleek azken hiru urteotan *Gartzela Zaharra* berrizatzeko egin izan dituzten obren amaiera ospatzeko ekitaldi bat izango da hil honen amaieran. Asko hitzegin den arren, Kultura Batzordeak ez du erabaki oraindik zertara bideratu edo zein kolektibok erabili ahal izango duen lokal hori.

□ **IMI**

Bergarako IMI bulegoak otsailaren 3tik 7ra bitartean emango den *Lehen mailako automata programagarrien* ikastaroa antolatu du.

□ **Joxan Iza**

Joxan Iza bergararrak bere azken lanak aurkeztuko ditu urtarrilaren 11tik 25era bitartean Errenteriako Xenpelar Erakusketa Aretoan. Ordutegia, arratsaldeko 6etatik 8.30etara.

Joan den urteko azken Plenoa polemikoa suertatu zen

Abenduaren 23an, 91ko azken Plenoan komertzianteeek, orainarteko lizentzia fiskala eta publizitate zergaren orde, Diputazioak aurten ezarriko dien *Iharduera Ekonomikoen Zergaren* gainean aurkeztutako alegazioak ez ziren onartu, HB izan baitzen komertzianteen alde azaldu zen bakarra. Bestalde, Bergarako Udalak Eusko Jaurlaritzarekin *etxebizitza sozialak* eraikitze-ko sinatutako konbenioa eta Rekaldeko Jauregia *Euskal Ondarearen Zentrua* izateko mozioak aho batez onartu ziren. Konbenio honen arabera, 68 etxebizitza egingo dira Mintegin eta Udalak, utzitako terreneen truke, 5 etxebizitza eta zenbait garaje jasoko ditu.

Bestalde, EAJ, PSOE eta EEko kontrako eta HB eta EAren aldeko botuekin, *Senideak* presoen familiartekoen Elkartek presoezko dispartzio politika salatu eta, bide



batez, presoen Euskal Herriratzea, beren esku-bideak errespetatzea eta beraiekin solidarizatzeko aurkeztutako mozioa atzera bota zen egun hartan.

Joan den astelehenean Kultur Etxean emandako prentsaurrekoan, *Senideak* EAJ ren jarrera salatu zuen. Prentsaurrean adierazi zuten, "gurea ez zen mozio politikoa, gartzeletan ematen den askatasunaren pribazioa eta giza eskubideak

errespetatu daitezela eskatzea nahi genuen, besterik ez".

Irazabalek Udaletxea utzi

Aipatu dezagun era berean urteko azken Plenoa aurreko legealdian *Osasun eta Ongizate Sozialeko* arduraduna izan genuen *Jose Luis Irazabal* HBko zinegotziaren azkena izan zela, "arrazoi pertsonal eta profesionalengaitik" Udalbatza uztea erabaki baitu.

TOKI-EDER Taberna

Pintxoak eta eguneko bazkariak

Artzamendi, Tfnoa: 76 51 84


KONDE PANADEROKUA



Burdiñate 1, Tfnoa: 76 02 57

ERROTA - GAIN

Aluminioak



• **Aluminiozko leihoak (Isolamendu termikoa) eta PVC.**

• **Galdaragintza orokorrean**

Labegaraieta - Hazkarruntz Auzoa Tfnoa; 76 32 40
BERGARA



Espaloi berria

Diputazioak proiektua aprobata eta laguntza ekonomikoa eman arren, *San Antonio* eta *Ozaetako* zubiaren artean egin beharreko asfaltatze lanak atzeratu egingo dira oraingoz. *Hirigintza Batzordeak* eskatuta erabaki hori hartu zuen *Gobernu Batzordeak*. Atzerapen honen arrazoia Udalak tramu horretan Urteagan egiten ari den espaloiaren antzeko bat egin nahi duela litzateke. Proiektu honen arabera, Ibai-ertzaren kontrako aldean, Zubiaretik hasi eta Kami-

neroen Etxea dagoen lekuraino egin nahi da espaloia eta behin lan horiek burutuz gero, errepi-dearen asfaltatzearen komenigarritasuna azpimarratu du Hirigintza Batzordeak.

Bestalde, hil honen bigarren hamabostaldian ere, *Ibargarai Hiribidea*ren asfaltatze lanak hasiko dira. Bederatzi milioi pezetako aurrekontuarekin, Etxepare liburutegitik Beheko Estaziñora doan tarte asfaltatuko da batheen ugaritasuna dela ta.

Txinpartak

✓ Abenduaren 21ean Bergarako 40 talde inguruk *euskararen* erabilpena bultzatzeko *hitzarmena* sinatu zuten Udaletxeko Pleno Aretan. Entitate sinatzaileek beraien arteko harremanak, euren barne administrazioa edota antolatuko lituzketen ikastaro, entrenamendu, etab.ak euskara hutsean egiteko konpromezua hartzen dute.

✓ *Lokatza Txirrindulari Elkarteak* ziklismoan hasi, lizentziak tramitatu edota bazkide egin nahi dutenei ostegunetan, 20.30tik 21.30ra, Elkarteak Seminarioan duen lokaletik pasatzeko gonbitea egiten die.

✓ Datorren ostiralerako Antzuolako *Gazinemak La misión* filmearen proiektzioa iragarri du. Emanaldia gaueko 10etan hasiko da zine-aretoan.

✓ *Antzuolan* ere, *Udalak*, langabetuei Udaletxetik pasatzeko eskatzen die, beraien egoeraren berri jakin eta, bide batez, soluziobideak aztertzeo asmoa baitu Udalak.

✓ 15 txirlorekin *Lucio Sarasketak Elgetako Gabonetako Bolo Txapelketa* irabazi zuen. Bigarren, 12 txirlorekin, *Sebastian Aranzabal* sailkatu zen eta *Javier Bolinaga* hirugarrena izan genuen 11 txirlorekin.

✓ *Nahikari* tabernan hilaren amaierararte *Angel Peralesen* estilo figuratiboko zenbait oleo eta akuarela izango dira ikusgai.



ETXEBERRIA

ERLOJUTEGIA - BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16, Tfnoa: 76 23 94- 76 12 65
BERGARA

ELKAR 
ELEKTRAGINTZA

Mota guztietako
instalazioak

76 00 00 BERGARA

Kirol Moda
SURF

AISOR

Rip Curl, Town country, Quick Silver, O'Neill

Bidekurutzeta 7 Tfnoa: 76 04 10 BERGARA

Gabonak Argazkietan

Urtero bezala, aurten ere iharduera ugari antolatu dira gure herrian, Gabon jaietan. Hona hemen guzti horien eta gertakizun bihurtu diren beste notizia batzuen kronikatxoa, negu gordin honek oparitu digun eguberri hotzaren kronika, argazkitan.




Errege kabalgata. Orientetik hurbildu zitzaizkigun **Meltxor, Gaspar** eta **Baltasar**, Bergarako haurrek egindako eskariei erantzuteko asmoz. Iluntzean gutunak hartu eta gaeuz, gaztetxoan loaldia aprobetxatuz, hantxe ibili ziren etxez-etxe, erregalua zapata gainean uzten. Hurrengo egunean, Errege eguna, herriko espaloi eta plazetan, jostailu berriak estrenatzen ari ziren neska-mutil koxkor piloak ikusi genuen.



Gabonetako kontzertu zoragarria Bergarako musika taldeek, alegia, Orkestra Sinfonikoa, Musika Banda, Aritzeta abesbatza eta Orfeoia, emandakoa. Urteko kontzertu garrantzitsuenetako prestaturiko erreperitorio zainduak ikusentzuleen zoramena sortarazi zuten, abenduaren 20an, Gabon jaien atarian. Unerik hunkigarriena, **Alfredo Gonzalezen** zuzendaritzapean guztiak bat eginda, **Ennio Morriconeren** *La Mision* pieza eskeini zutenean. Amaitzeko, azken urteetan egin ohi den bezala, *Adeste Fideles* ospetsua kantatu zen. Ederra benetan.

Argiak.

Gabon egunetan herri barruko kaleak dotore argiztatuak izan ditugu. Era guztietako eritziak entzun dira apainketa bereziaren inguruan: batzuentzako gehiegizkoa, beste batzuentzako, berriz, beharrezkoa. Kontuak-kontu eta direnak-direla, inguruko herrietakoak baino dotoreago izan omen ditugu ditugu kaleak. Orain, Udalak, kaleko dendariei dirulaguntza eskatuko die 4 milioitako presupuestoari, neurri batean, aurre egiteko eta jasotzen den erantzunaren arabera, datorren urtean berriz jarriko dira edo ez dira jarriko.



ETXAGI Jatetxea

Afariak - Bataioak
Jaunartzeak
Eguneko menua
Gosariak - Bazkariak

Mahasterreka 8, Tfnoa: 76 53 12

LONBIDE OINETAKOAK



BIDEKURUTZETA 7,

Tfnoa: 76 10 57

BERGARA



Sukaldaritzan trebetasuna erakutsi zuten *Bergarako Kultur Ekintzak* antolatutako gastronomia lehiaketara bildutako ehundik gora neska-mutikoeek. Azaroaren 26an, San Martin Plazan egindako neurketan, Xabier Eskibel, Aitor Lazpiur, Ruben Sanchez eta Ion Gurutz Alberdik

osatutako laukoteak prestatu zuen **paella** onena. **Tortila lehiaketan**, ostera, Ioana Aranburu, Ane Garmendia, Maite Bengoa eta Usue Larrañaga izan genituen garaile.



Mikel Markez abeslariak emandako kantaldiak jende morderoxka erakarri zuen Pol-Pol tabernara. Abenduaren 29an izan zen jaialdiora eta bertara hurbildutakoek, gazteak gehienak, Mikelekin batera banan banan kantatu zituzten lasartearraren erreperitorio zabala, tartean, "Zuretzat" ospetsua. Aipatutako kantaldiaz gain, *Euskal Herrian Euskaraz* taldeak gabonetarako antolatutako beste ekitaldi batzuk ere arrakasta handia izan zuten, esaterako, abenduaren 3an egin zen euskal rockari buruzko **Kafe-tertuliak** eta Gatzetxean egun berean antolatutako **Bertso Afariak**; baita hurrengo eguneko rock jaialdiak ere.



Eskaparate lehiaketa.

Udaleko Kultur Zerbitzuak antolatutako **I.go Eskaparate Lehiaketan**, Subijai dendak egindakoa gertatu zen garaile, **Igarok** jaso zuen bigarren saria eta **Txukunek** hirugarrena. Aipamen berezia, berriz, **Gisasola Burdindegia**, **Ninika Loradenda** eta **Alga Lurrindegiarentzat**. 30 denda inguruk hartu zuten parte lehiaketan eta 100.000 pezeta eta Oroigarria jaso zuen lehen sailkatuak, 50.000 bigarrenak eta 25.000 hirugarrenak. Argazkian, Subijaiko **Mercedes Urdanoz**, **Luis Abajo** Kultur Zinegotziaren eskutik lehenengo saria jasotzen.



Hori suertea!!

Gabonetako eta Erregetako (Nifoa) loteriek bergararroi ezer gutxi utzi baziguten ere, **Lotoan**, bederatzita milioina tokatu zitzairen bi herritarri.

Luis Larrañaga Kikio eta **Pedro Ezenarro Txurrukak** astero jokatzeko duten (5-2-11-16-31-38-49) zenbaki sorta, abenduaren 24ko Lotoaren zozketan saritua irten zen. Hori suertea hori!!

**ETXEPARE - BILINTX
LIBUBUDENDA**

Liburuak eta diskoak

Ibargarai 12, Tfnoa: 76 40 50 BERGARA

Erromeriak ermitak ixteraino?

Ermitak zer ikusi haundia izan dute auzoetako bizitzarekin, eta arlo honetan bertako jai eta erromeriek. Bergaran erromeriasko izan dira izen haundikoak. Baina XVIII garren gizaldian galerazten zituzten aginduak eman ziran. Batez ere, Probintziako Elkarte Nagusiak bat zuzendu zuen kaletik urruti eta toki bakartietan feriarik ez egiteko aginduaz, etörtzen ziren eragozpen okerregatik, zionez. Zigorak 50 dukaterano igotzen ziran.

Gipuzkoako Diputazioak idatzi bat bidali zion Bergarari, gonbiterik ez egiteko, danbolinik ermitetara ez bidaltzeko, eta herrian bertan agur marien ondoren ez jotzeko adieraziz. Udaletxea ez da horrelako agindurik ematera ausartzen, eta Diputazioko idazia Bergarara bakarrik bidalia izan dela adierazten du. Gainera, esaten dio

Abdon eta Senen doneen jaiak (Santamañako bigarren zuzendariak) eta Loiolako Inazio deunarenak antzinakoak direla. Gerotxoago Udaletxeak San Prudentzioko erromerira tabernarik eta danbolinik ez bidaltzeko agindua ematen du, dagoen festarik arriskutsuena eta txarrena dela adieraziz.

Oraindik Udaletxeak, "gaizkibideak" zeharo moztu nahian, San Pedroko eta Santamañako apaiz taldeei galdera bat zuzentzen die: la zer iruditzen zaien ermitetako jaietan ateak itxitzea eta mezarik ez ematea. San Pedroko apaiz taldeak baiezkoa eman zuen, Santamañakoak ezezkoa.

Ermitak botatzeko agindua

Ez dakit erromeriekin zer ikusirik ba ote zeukan, agian ezer ere ez, baina 1.769 garren urte-



1.769 urtean Gipuzkoako Elkarte Orokorak ermita guztiak botatzeko erabakia hartu zuen. Argazkian, San Anton Abad.

an Gipuzkoako Elkarte Orokorak ermita guztiak botatzeko erabakia hartu zuen. Harrigarria!

Azkenik, Konbentzioko Guda garaian, 1.793 garrengo abuztuan, Valladolideko Etxe Nagusiak hartutako agindu bati gure probintziak honerako baimena eman zion. Honela esaten zuen:

"Agintariak joan daitezela joko-etxeak, tabernak, jateko eta lotako etxeak ikustera, eta batez ere toki baztertuetan dagozen bentak eta mezarik ematen ez diren ermitak, eta horietara biltzen direnen izenez zerrenda egunero jasotzeko bidea gin dezatela"

Imanol Sorondo

KIZKUR



Illepaindegia
Solariuma

Bolu 51, Tfnoa: 76 50 32



BERGARA

Tfnoa: 76 25 99

URKIOLA


Gizon eta emakumezkoen moda

Bidekurutzeta 42,

Tfnoa: 76 16 48

BERGARA

Heldu dira, bertan
ditugu, urtarrileko
merkealdiak.
Eguberri jaietako
gastuek
poltsikoak ia hutsik
laga badizkigute,
zertxobait
utzi dugu
beherapenatarako.
Errebajak sortzen
duten erosteko
gogo zoro hori
hiriburuetan
nabariagoa
bada ere,
Bergarara ere
heldu da. Gora
beherapenak!!



bonetan saldoak izan ditugu, baina hori legezkoa da, eta beherapenatarako Errege osterarte itxoin dugu", esan digu Bergarako dendari batek.

Saldoak, likidazioak eta beherapenak, ondo bereiztu behar diren kontzeptuak dira, ezberdinak direlako.

Saldoetan, akatsen bat duten produktuak eskeintzen dira, jatorrizko prezioa merketuz. Dendaren batek likidazioak egiten baditu, berriz, itxi edo eta negozioa lekuz aldatzekotan dagoelako izaten da. Dituen produktu guztiak saldu ahal izateko prezioak jeisten ditu. Azkenik, beherapenak, denboraldiaren amaieran ematen dira: urtaro batetik bestera pasatzerakoan normalean. Merketzen diren produktuak sasoi berean saldutakoak behar dute izan, beraz ez dute akatsik izan behar.

Hortaz badakizue, merkealdiak direla eta erosketak egitera bazoazte, adi egon zaitetze saltzen dizuetenarekin. Badaezpada, kontsumitzaileen babeserako elkarteek, "erosketa egiterakoan ticketa eskatu eta supergangei kasorik ez egitea" gomendatzen dute. Horrez gain, "prezioen beheratzean produktuak kalitate taxarragokoak ez dutela zertan izan behar", argi utzi dute behin baino gehiagotan.

Beherapenak bertan!!

Astearte honetan jarri dira indarrean urtarrileko beherapenak eta telebistan ikusi ditugu hiriburuetako almazen haundietako sarreratan sortzen diren ilada luzeak. Bergaran, horrenbestera ez bada ere, asko dira Errege osteraiten dutenak beren erosketak egiteko, urtarrileko gangaren zai egoten direnak.

Astean zehar ez dugu mugimendu berezirik somatu herriko dendetan. Batzuk, gainera, egun baterako itxita izan dute astebukaerarako merkealdiak prestatze-

ko. Hala ere dendari batzuk esan digutenez: "egun pare bat bakarrik daramagu beherapenetan eta igarri da, batez ere gazteak, sasoi honetara itxoin dutela xoxak gastatzeko. Jende dexente ibili da".

erosketak
egiterakoan
ticketa eskatu
eta
supergangei
kasorik ez egin

Direnak-direla, erro-pa denda gehienek euren karteltxoak jarri dituzte eskaparateetan: Merkealdiak, Beherapenak, Ofertak..., irakurri ahal izan dugu kristaletan pegatuta.

polemika

Aurten eztabaida zorrotzak sortu dira komertzianteen artean, batzuk beherapenak goizegi jarri dituztelako, legeak ezartzen duena baino lehenago merketu dituztelako produktuak. Polemika, batez ere, hiriburuetan piztu da. "Ga-

Taberna

kafetegia

**EHIZTARIAK
LOS CAZADORES**

Kafea da gure berezitasuna

Zubieta 26,

BERGARA

FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkai Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa; 77 14 24

AGIRREBEÑA

**Oinetakoak
Erropa denda
Lenzeria**


Urteaga 5, Tfnoa: 76 18 29



**ETXE-
-AUNDI**

**Negoio bazkariak
Ezkontzak
Banketeak**

Torre Auzo 9, Tfnoa: 78 19 56
OÑATI

FS 
oto sistema

**ARGAZKIAK
ORDUBETEAN**

- Diapositiba errebelatzeak
- Karneterako argazkiak momentuan
- Argazki materialen salmenta eta konponketak.
- Jaunartze, bataio eta bodetako erreportaiak.

Kruz Gallastegi 2, Tfnoa: 76 00 50

Gabonak garestiak irten zaizkizu?



Mikel Gomez
35 urte, langilea

Bai erregalutan batez ere. Jaten gutxiago amaren etxera joan garelako egun berezietan.




Nagore Eguren
17 urte, ikaslea

Asko ez dut gastatu, joan den urtean baino gutxiago. Erregalu gutxiago egin ditut eta...



Maritxu Murgiondo
48 urte, etxeko andrea

Nik ez dut gastatzen horrenbeste diru Gabonetan, ez jaten ez erregalutan ere. Normala.



Javier Rodriguez
31 urte, langilea

Ez, beste urteetan baino gutxiago. Aurten erregalutan jaten baino gehiago.

MABER GIMNASIA - ETXEA

Kulturismoa

Mantenimendu gimnasia eta zuzenketazkoa

Edozein kirol egiteko pisu-sistema egokiak

Sasoian egoteko behar dituzun makina eta pisu mota guztiak

URTE ASKOTAKO ESPERIENTZIA!!

Zuzendaritza: MARTIN BERROYA EGAÑA

(Euskadiko Kulturismo Txapelduna)

Koldo Ellzalde 16, Behea

Tfnoa: 76 56 17

BERGARA



Aitzakia

Joan den egunean emakumeek lanean jasaten dituzten gehiegikeria sexuali buruzko programa bat entzutea tokatu zitzaidan irratian. Azken bolada hontan asko entzuten den gai bat da hau eman diren hainbat kasurengaitik, baina haatik, lanetik aparte ere eguneroko bizitzaren beste arlo batzuetan ere horrelako gauza kalifikaezinak gertatzen dira.

Aipatu irrati programara edozeinek dei zezakeen bere eritzia emateko. Deitu zuten denak emakumeak izan ziren gizonezko bat ezik. Ez ziren ausartu edo lotsatu egin ziren antza.

Eritzi guztietan, hitz berdin edo klabe bat azaltzen zen: "probokazioa". Askok zioen gehiegikeria hoiek gizonezkoa probokatzeagatik ematen direla; emakumeak probokatzen ditugulako jasaten ditugulako alegia. Mesedez. Probokatua ez da sentitzen ez duena baino.

Emakume baten aurrean horrelako erreakzionatzen duen gizona buru-hutsa da eta emakumeak probokatzen dueneko ideia hori aitzakia faltsu eta inozoa da, bestela hamabi-hamahiru urtetako neskato batengan zein probokazio aurki daiteke?

Monika Belastegi



ETB eta Egunkaria

EITBren 1.992rako aurrekontua ia 15.000 milioitakoa dela jakin dut. Aurten Gasteizko gobernuak euskal kulturari eskainiko dion dirua EITB eta Guggenheim museoaren artean banatuko da, honek ere 20.000 milioitik gorako aurrekontua bait du.

Egunkariak 1.991n bezala ez du xoxik jasoko, euskal kulturari eta euskararen normalizazioan duen garrantzia handia den arren. Nere ustez Egunkariak merezi du aurrekontu horren zati bat. Izan ere, Egunkariak papel garrantzitsua betetzen du euskaldun sentitzen direnen artean eta euskaraz bizi bnahi dugunon artean, ETBk bestekoa.

ETBren lana ukaezina da baina euskal egunkari on bat behar dugu, beste medioek bezala kazetariak munduan zehar bidaliko dituen, korresponsal sare egokia duena,... Euskal Herriko egunkari onena, azken finean.

Baina horretarako medioak behar dira, eta medioak izateko nahikoa litzateke ETBk jasotzen dituen milaka milioietatik zati txiki bat, hau da, edozein kulebroi erosten erabilitako dirua egunkariarentzat izatea.

Urte betean argi erakutsi du maila oneko kazetariak dituela, geroz eta irakurle gehiago eta harpidetza kopuru haundiagoa ere bai. Bergaran hirurogei bat lagun dira harpidedunak, Berrigara astero bezala. Martxan jarri zirenetik lehen urtea abenduan bete dute biek. Zorionak eta urte askotarako.

Jon Altuna

EDEL tapizdenda

Etixerako artikuluetan aukerarik haundiena eskaintzen dizugu:

*Alfonbrak, kortinak,
kortinoiak, koltzak,
edredoiak, etab.*

Zure bulegoetan giro atsegina behar baduzu, ez ahaztu pertsiana-motarik egokienaren berri eskatzea.

Bidekurutzeta 14, BERGARA



**ILEAPAINDEGI MISTOA
ESTILISTA.**

Artekale 29, Behea
Tfnoa: 76 29 70
BERGARA




**ERAIKUNTZA
MATERIALEN
BILTEGIA**

**Azulejo erakusketa • Onduline
P.V.C. • Blokeak • Pinturak**

TELLERIKO LANA Pol/Ind. San Juan
C-1 B Pab. Tfnoa: 76 01 41
Faxa: 76 00 58 **BERGARA**

Zeuk galde



47 Zenbateraino ari dira txikitzen emakume eta gizonezkoen arteko diferentziak lana bilatzeko orduan?

Oraindik ere badaude diferentziak baina garai batean baino txikiagoak direla garbi dago. Euskal Autonomi Elkarteko 16 urtez gorako langilegoa, sexuaren arabera aztertuz gero, honako hau ikus dezakegu: 16 eta 24 urte bitartean gizonezkoen eta emakumezkoen arteko proportzioa 10/7koa da; 25 urtetik 44ra bitartean 10/6koa da eta 45 urtetik gorakoan artean 10/2,5koa.

Beste kontu bat izango litzateke batak eta besteak egiten dituen lanak. Hor ere agertuko litzateke alderik.

□ Hurrekin jolasean

Valen Moñux Bergarako Orfeoiko presidentea telebistan ikusi ahal izango dugu igande honetan, hilak 12, Javier Sardak zuzentzen duen *Juego de niños* saioan parte hartzen. Valen Chicas de hoy en dia telebistean parte hartzen duen Diana Peñalverekin batera hurrekin zelebrekeriak asmatu nahian arituko da. Ez dizuegu aurreratuko zebat *gallifante* irabazi zituen... Soluzioa, igandean arratsaldeko 6 t'erdietan izango duzue.

□ Ekolojistak

Hamar eta 12 urte bitarteko gaztetxo hauek *Mendia Bizirik* Elkarteko *harrobia* dituzue. Astero mendian ibiltzen zaizkigu noizean behin publikatzen duten aldizkariaren izenburuari jarraituz, natura *Ezagutu eta maitatuz*. Gabonetarako ere ideia orijinal bat okurritu zitzaion, Goiko Kondeko parkean txoriei jan-kaxa bat jartzearena hain zuzen. gaztetxo hauei esker txoriek turroia jaterik izan zuten amaitu berri zaizkigun Gabonetan.



Argazkian, Xabier Ezkibel (goian ezkerrean), Gaizka Agirre (goian eskuman), Aitor Barrutia, Iker Dorronsoro, Ekaitz Alkorta, Kepa Eguren, Iker Zabaleta eta Mikel Garate (ezkerretik eskumara) eta, makurtuta, Xabi Mondragon, Iñigo Santamaria, Iker Elgero, Lander Juaristi eta Mikel Larrañaga.

**Aldoka
Maldoka**
TABERNA

Kruz Gallastegi, BERGARA

ZARZUFO



SAN JUAN

BERGARA

YAZKI

UME

GAZTE

Neska eta Mutil

Irizar 3

Ibargarai 8

Tfnoa: 76 22 93

Tfnoa: 76 54 73



□ **Sputnika**

Angiozarko Jai Batzordeak irailaren 29an bere omenez jaiak egiten ziren San Migel argazkian ikusten den itxurarekin bidali zuen *oporretara*. Urrin joan zen bai San Migel, azaroaren 30ean aurkitu baitzuen Falcesen (Nafarroa) Begoña Rekartek. Aurkikuntza miraritsu horrengaitik 5.000 pta.ko saria eta Angiozar bisitatu eta bertan bazkaltzeko gonbidapena jaso du. Zerutik etorritako saria, dudarik ez.



Zertan dihardute ba?

KONTXI UGALDE



Zuzenbidean lizentziaturiko 29 urteko Bergaran bizi den segurarra Udaletxeko Idazkari probisionalaren izango dugu, Usurbileko Udaletxera lan hori betetzera joan zaigun Jose Luis Unanueren partez.

XABIER ARANBURU



Bergarako Udalak kontratatu berri duen Museologoa duzue 29 urteko donostiar hau. Xabierrek Historiako ikasketak eginak ditu eta ostegunean estrenaitu zen bere lan berria Kultur Etxean.

GOIERRI
Autogidarien eskola

Fraskozuri Enparantza 5

Tfnoa: 76 41 50

BERGARA

ezpeleta
etxea

Harizko eta kotoizko goimalako izara eta mantelak

Barrenkale 44 BERGARA

Izkirimiriak

Berri txarrak, pixkanaka, poliki-poliki eman bearra dutela edozeiñek daki. Bein Bergarako mutiko bat arazo orretan sekulako *diplomatikoa* agertu zitzaien: bialdu zuen bein maixuak eskolatik etxera gure mutiko ori, beronek nai ez zukeena aldean zeramala ta etxe parera eldu zanean ikusten du ama sapailu edo balkoian eta esaten dio deadarka...

- Ama... a!..., uste dot KK-guriak nago-la!...



* * *

Aurki Bergaran konfirmazioa izango zala iragarten dio eskolan maixuak mutikoeri. Orra bi mutikoren aopeko alkarrizketa konfirmazio gai orrezaz:

- I konfirmauta al

ago?

- Ez jakixat ba... Gure amak jakingo jok... Ta eu?

- Ni bai!...

- Seguru?

- Orixe!... Besuan oindiok be marka malakal jauzkat ba!...

Txomin Amasorrain

Antzinako kontuak

Telesforo Aranzadi eta Bergara (IV)

Aranzadik Bilbon burutu zituen lehen ikasketak leku desberdinetan ikasi zuelarik. Gaztaroan hasten da baita ere zango ezkerreko aldakak sortzen zizkion arazo artikularrak jasaten. Bere gurasoak saiatu baziren ere hainbat sendagile bisitatuz semearen gaisotasuna osatzen, ezin izango da gaitza sendatu.

Bere aldaka ezkerria jokurik gabe geldituko da ondoez eta sufrimentu askoren hasiera izango delarik.

Batxilergoa Instituto Vizcaino delako ikastetxean burutu zuen, 1.877ko ekainean Arteetako Batxiler mailako azterketan bikain kalifikape-na lortuz.

Ondoren, behin eta berriz, zer egin zezakeen galdetuko dio bere buruari. Azkenean, karrera gehienetarako zailtasu-

nak eta eragozpenak aurkitu ondoren botikari izatea erabakiko du.

1.885eko udan, hau da, Aranzadik 25 urte zituenean, bazen, jadanik, bi lizentziatura eta doktoradutza baten jabe. Botikari ikasketekin batera Arte eta Ofizioetako Eskolan ikasiko du. 1.881ean amaitu zituen Botikari ikasketak, Lizentziatura bikain kalifikape-na gaindituz. Hurrengo ikasturtean, 1.881-82ean, Doktoradutza burutuz gain Natur Zientzietako karrerarekin ekingo dio 1.885ean amaituz. Guzti hau hizkuntza desberdinez horniturik: frantsesa, ingelesa eta alemaniera. 25 urte zituela gai kultural ez zientifikoz ondo jantzirik zegoen, gutxitan beste ikasleengan ematen den bezala.

Xabier Larrañaga

ONENA
TINDATEGIA

Barrenkale 29, BERGARA

JUBILATUEN
TABERNA

• **Bazkari eta afariak**

Tfnoa: 76 62 71 ANTZUOLA

PEÑALBA

• **Loteria**
• **Oparigaiak**

Irala 1, Tfnoa: 76 10 49
BERGARA

Zubiberri

Sagardotegia

• Eguneko menuak
• Kazuelitak

San Anton Tfnoa: 76 41 06

Bidekurutzeta 6, behea
Tfnoa: 76 57 68
BERGARA

arod
boutique



Sariak banatu

Abenduaren 28an *Udal Kirol Zerbitzuak* eta *Berrigarak* antolatutako *Kirol sariak* banatu genituen. Argazkian, ezkerretik eskumara, goian; Andoni Larrañaga Kirol Batzordeko zinegotzia, Joseba Arietaleaniz, Jesus Kortabarria (Lokatza, talderik onena), Iker Muruamendiaraz, Gorka Marzan, eta Kruz Jauregi (Komisioaren saria). Behean: Anjel Bideluze, A-

maia Arantzabal (Etor-kizunik onenekoa), Iñigo Gallastegi (Kirolaririk onena) eta Iñaki Ugarte-buru Kirol Zerbitzukoa. Boto emaileei dagokienez, Andoni Rodriguezek bidaia eta Iñigo Idigoras eta Yolanda Juaristik Kirol Zerbitzuko karnet bana jaso zuten. Finalisten artean zozketatutako Pariserako bidaia berriz, Amaia Arantzabali tokatu zitzaion.

Txinpartak

✓ *Iñigo Igartuak* Euskadiko Ziklo-kross Afizionatu Txapelketa irabazi zuen abenduaren 31n Urdiainen korritutako lasterketan.

✓ *Bergarako Igeri Elkarateak* bere 20. urteurrena ospatzeko urtarrilaren 26an *Gipuzkoako XXV. Negu Txapelketa* antolatuko du. Bezperan, 25ean, Igeri Elkaratearekin nolabaiteko harremana izan duten pertsonentzat afari bat antolatu da. Gonbidapenak hilaren 18a baino lehen jaso beharko dira Ariznoan, Zatoia boutiquean edota pizinetan bertan.

✓ *Lokatza Txirrindulari Elkarateak*, datorren ekainaren 18an *Euskal Bizikletaren* bigarren etapa gure herrian amaitu eta 19koa ere Bergaratik hasiko denez, publizitatea egin nahi duten enpresa edota entitateei dei egiten die zuzendari-tzarekin harremanetan jarri edota lokaletik (os-tunetan 20.30tik 21.30ra) pasatzeko.

✓ *Gipuzkoako taldeen arteko Pelota Txapelketa* *Muruamendiaraz* eta *Gutierrez* infantiletan eta *Larrañaga* eta *Oruesagasti* juniorretan bikote txapeldun ordeak izan ditugu. *Oregi* eta *Muguruza* seniorrak berriz, bere kategoriko hirugarrenak izan genituen.

San Silvestrea

Abenduaren 31n, *Zaleak Atletismo Elkarateak* eta *Udal Kirol Zerbitzuak* antolatutako San Silvestre lasterketa korritu zen. 200 partaide inguruk korritu zituzten zirkuituko 6 Km.ak eta irabazlea *Alfonso Luermo* atxabaltarra izan genuen, helmugaratu ziren lehen bi korrikalariak deskalifikatuak izan ondoren. *Ion Arantzabal* izan zen lehen bergararra, 6. postuan. Emakumezkoetan *Bileitz Marzan* bergararrak lortu zuen garaipena, beteranoetan *Feliciano Martinezek*, juniorretan *Patxi Mendizabalek* irabazi zuen eta haurretan berriz, *Igon Iriartek*.



LARREA

TABERNA

Kale Barren 17
ANTZUOLA

IGARO

- ✓ Kosmetika eta oparigaiak
- ✓ Eder gela
- ✓ Bio Solariunma

Barrenkale 35, Tfnoa; 76 17 27

BERGARA

Karrozeria

Txapa - Pintura

Tfnoa: 76 12 31

Zubleta 46
Bergara



Mekolaldeko Eskolako umeak

Gaur egun Osintxun, Uberan eta Angiozarren bakarrik dituzte eskolak baina garai batean dexentez ugariagoak ziren auzo-eskolak.

Erretratu honetan agertzen direnak Mekolalde eskolakoak dira orain dela 34 urteko (1.957ko apirila) erretratu batean. Paris-Gain etxeko bajuan zegoen eskola 1.951.ean sortua. Irakaslea Matea Monje, Extremadurakoa zen.

Hara zeintzuk diren, ezkerretik eskumara:

Zutik: Maria Luisa Olasolo, Maritxu Urbistondo, Mentxu Cortada, Cecilia Olasolo, Adeka Villar, Matea Monje, Jose Inazio Garaikoetxea, Pedro Lete, Jabier Aizpiri eta Benito Irazabalbeitia.


Jarrita eta belauniko: Begoña Urbistondo, Isabel Martinez, Maria Dolores Lete, Izaskun Iturbe, Arrate Aizpiri, Mertxe Olabarria, Maria Asun Lete, Jabier Olasolo, Arrate Aizpiri, Marivi, Bittor Oregi, Juan Ruperto Alberdi eta Alfonso Larrañaga.

Estepan Plazaola.

Argazia: Elena Etxaniz

SURPE
Taberna

Erdiko Plaza, Tfnoa: 76 64 97
ANTZUOLA



Erreportalak, ezkontzak,
kirol grabazioak, bideo
industrialak, zinten kopiak .

Santalaitz 4, Tfnoa: 76 54 35

anezka

Neguko oihalak eta
lenzeria

Espoloia 8, Tfnoa: 76 59 25



ETXEBIZITZA

Pisua salgai: bi gela, saloia, sukaldea, bainua, buhardila eta berogailu zentrala. Tfnoa: 764971.

Pisua salgai Koldo Eleizalden. Tfnoa: 765823.

Pisu txiki edo buhardila bat hartuko nuke a-lokairuan. 763270.

Pisua salgai, Iraburu kaleko 10.ean. Deitu 763911 telefonora.

Pisua salgai Koldo Eleizalde 20an. Deitu gaueko 8etatik aurrera: 764252.

Pisua salgai Dr. Fleming kalean. Deitu 760415 telefonora iluntzeko 8etatik 10etara bitartean.

Pisua errentan hartuko nuke. Deitu: 760357

SALDU-EROSI

PENTAX ME Super, TAMRON 28-70 mm-ko objetibodun argazki makina salgai. METZ 20B3 flasha, funda eta poltsa ta guzti. **Manuala eta automatikoa.** Berri-berria. Deitu: 765690 edo 801538 telefonoetara.

Yamaha 250 SR oso egoera onean salgai. Deitu: 86207 telefonora.

Amstrad ordenadorea salgai, kolorezko monitorea, 3 pulgadako disketera, 30 joku. 35.000 pezeta. Tfnoa: 762512.

PCrako joku original eta koplaiuak (100 inguru) salgai. Oso merke!! Deitu: 761785 (Asier).

SS-9068 M matrikuladun **R-14** bat salgai. Deitu: 763612, gaez

3 pertsonarentzako iglu kanping-denda berria salgai. Deitu: 763495.

Ekonomika eta beheko surako egurra zakuka salduko nuke. Deitu: 763016

9 bandadun AKAI EA-A1 ekualizadorea eta **AKAI AP-X1 tokadisko** erdiautomatikoa salgai. Deitu: 765690 edo 801538 telefonoetara.

CX 2.600 A ATARI bideojokuak erdi-prezioan salgai. 10.000 pezeta, ia berria. Tfnoa: 761718

Neskentzako bizikleta salduko nuke. **BH bolero rosa** modelo. 7tik 11ra urtekoentzako modukoa. Otarre eta guzti. Tfnoa: 761314

SPECTRUM+2 bat salgai. 128 K eta 20 bat joku. 2 Joystick. 19.000 pezeta. Deitu: 762512.

4 metrotako ADRIA Karabana salgai. Oso egoera eta prezio onean. Deitu: 761312 telefonora.

3 atedun AX GT-ko baka bat salgai. Deitu: 762481, iluntzeko 8etatik aurrera.

LANA

Arratsaldez lana egingo nuke **etxeko lanak** egiten edo **umeak zain-tzen.** Deitu: 765482.

Furgoneta batekin **errekauak** egiten lan egingo nuke. Deitu: 742063.

Emakume euskalduna behar da **umeak zaintzeko.** Tfnoa: 761323, denda ordutan.

Hildakoak

- Manuela Garmendia Astarloa* abenduaren 20an
- Luisa Santa Eulalia Perea* abenduaren 21ean, 88 urte
- Domingo Idigoras Aranburuzabala* abenduaren 25ean
- Manuel Alcantara Luna* abenduaren 28an, 28 urte
- Joseba Garitano Larrañaga* urtarrilaren 1ean, 88 urte
- Anizeta Agirre Elkoroturbe* urtarrilaren 4an, 103 urte
- Karmen Mujika Garmendia* urtarrilaren 5ean, 60 urte

Jaiotakoak

- Unai Garzia Lerda* abenduaren 22ean
- Iria Cuevas Vazquez* abenduaren 21ean
- Pablo Elkoroiribe Gabilondo* abenduaren 22an
- Mireia Olabarria Jauregi* abenduaren 28an
- Oscar Valle Hernando* urtarrilaren 5ean
- Lander Egaña Iztueta* urtarrilaren 6an.

AUTOPULLMANS ARABA
Autobusak

Eskurtsioak eta bidaiak edozein tokitara
ANGIOZAR Tfnoa: 76 55 70



Euskalduna
Taberna
OSINTXU

HALTZARI


FAGOR ALTZARIEN BANATZAILE BAKARRA

Harane Erreka 4
Tfnoa: (943) 76 30 57

BERGARA
(Gipuzkoa)



SUKALDERAKO ALTZARIAK



6 URTEKO
GARANTIA



ASEGURU ARTEKARIAK

- ✓ Etxeko arrisku askotarakoa
- ✓ Garraioak
- ✓ Autoak
- ✓ Komunitateak
- ✓ Bulegoak
- ✓ Pentsioetarako planak
- ✓ Istripuak
- ✓ Subsidioa
- ✓ Komertzioak
- ✓ e.a.

D. Fleming 3, BERGARA TFNOA: 76 15 24

BERGARA Kalea 2, 1. DONOSTIA